

NORENTZAT

Makina edo instalazio baten ohiko eragiketarik ateratzen diren eta haien barnean arnastu ezin den atmosfera sortzeko aukera duten mantentze-lanetan, konponketetan, aldaketetan, garbiketetan, diseinuan edo esku-hartzeetan parte hartzen duten ingeniariak, teknikariak eta langileak.

SARRERA

Indarrean dagoen araudiaren arabera¹, gune konfinatuetan, hala nola erregistro-ganberetan, depositu eta abarretan jarduten duten pertsonak ezagutu beharko dituzte segurtasun- eta osasun-arloko sarbideekin eta haiekiko esposizioarekin lotutako arriskuak.


HELBURUAK

- Instalazioen laginketa, hustuketa, erauzketa eta zonako aireztapena egiteko aurretiazko lanak.
- Atmosfera arnastezina izateko arriskua duen instalazio batean sartzeko eremua eta ekipamendu osagarriak prestatzea.
- Gune konfinatua duten instalazioetan zaintza-funtzioekin eta gerta daitezkeen larrialdi-egoerekin lotutako jarduerak ezagutzea.
- Ekipamendu osagarrien funtzionamendua praktikan jartzea eta ezagutzea.

PROGRAMA

- Definizioa, sailkapena eta adibideak.
- Gune konfinatuei lotutako arrisku espezifikoak eta prebentzio-neurriak.
- Aplikatu beharreko neurriak: Lan-baimenak, gasak detektatzeko ekipoa.
 - Aire ateratzeko eta aireztatzeko turbohaizagailuak
 - Segurtasun-tripode auto-erreskatatzailea
 - Arnasketa-ekipamendu autonomoak edo erdi-autonomoak
 - Izan daitezkeen gasen ezaugarriak
 - Sintoma fisiologikoak
 - Erreskate-prozedura
 - Zaintza-funtzioak gune konfinatuetan. Prebentzio-baliabidea

Errealitate birtualeko baliabideak erabiliko dira.



DATAK 2026

Ekainaren 16a

ORDUTEGIA 09:00etatik 13:00etara

IRAUPENA 4 ordu

LEKUA

OSARTEN KOOP. E, Jose Maria Arizmendiarieta, 1. Arrasate (Gipuzkoa) 20500

[Mapa](#)

MATRIKULA 110€ + IVA

OHARRA: Ikastaroa hasi aurretik fakturatuko da, egingo dela baieztatzen den unean, hain zuzen. Ikastaroa osorik egiten ez bada, ez da zenbatekoa itzuliko..

IZEN EMATEAK

<https://forms.office.com/e/xnXgTQ74Yp>

¹ [LAPL](#), 19. art.;